

KONTROL MOZIOA

Zurriolako bidegorriari buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko uztailaren 15ean Gune Publikoetako Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Zurriolan egin den bide-gorri aldaketa Bulebar-Zurriola zatian egin behar den ekintzaren zati bat da. Zati honetan egin diren lanen helburua izan da bidegorri berria Zurriola pasealekuan kokatzea eta orain arte Kursoaleko espaloian zegoen bidegorria kentzea. Horretarako bizikletek Sagueseko norabidean doazen errailetako bat erabili beharko dutelarik. Zehazki, ezkerreko erreia da erabili beharrekoa, erdibitzailearen alboan dagoena.

Egin berri den bidegorri hau arriskutsua izan daitekeela iruditzen zaigu hainbat arrazoiengatik:

- Ramon Maria Lilitik hiribidera sartzen diren autoek bidegorria inbadituko dute. Erradioa ez da nahikoa eta autoek, eskuinera jotzeko, bidegorria inbadituko dute. Eta puntu honetan ikusgarritasuna ez da oso ona, ez auto-gidarientzat, ez txirrindularientzat.
- 300 metroko zati batean txirrindulariek 6 semaforo eta beste horrenbeste zebrabide aurkituko dituzte.
- Autoak Miguel Imazetik hiribidera sartzean ere, txirrindulariekin topo egiteko arriskua dago.
- Ramón y Cajal kalearen izkina: oinezko ugari dagoen gunea eta autobus markesina bat.
- Zubiaren ertzean, Zurriola hiribidea eta Jesus M^a Leizaola ibilbideak bat egiten duten izkinan, oinezkoek eta txirrindulariek bat egiten jarraitzen dute. Maiz gatazka-gune bihurtzen dena.
- Bidegorri berrian jarri dituzten bereizgailuak ez dugu uste nahikoak direnik, familiak eta hurrek hainbeste erabiltzen duten bidegorri honetan. Pibote batzuk jartzea gomendatzen dugu.

Oro har, bidegorriak espaloitik errepidera aldatzea ondo iruditzen zaigu, autoei kentzea lekua eta bizikletei ematea ezinbestekoa da, baina non eta beti txirrindularien segurtasuna bermatzen bada. Eta kasu honetan, Zurriola pasealekuan egin den bidegorri berri honetan, ez dugu uste txirrindularien segurtasuna bermatzen denik.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

- Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Zurriola pasealekuan ireki berri den bidegorriak txirrindularientzako segurtasuna betetzen duela azter dezala.
- Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari txirrindulariek Zurriolako bidegorrian bizikletaz lasai ibiltzeko behar diren segurtasun-neurriak har ditzala.

Donostian, 2019ko uztailaren 19an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia